Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 24an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Arrantza esparruak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak arrantza esparruak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 12ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Cruz Alli Aranguren jaunak, arrantza barrutiak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari buruzko galdera bat egin zuen. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Arrantza barrutiak kudeatzen dituzten arrantzale elkarten kontuen fiskalizazio eta kontrolari dagokionez, Ingurumen Departamentuaren erantzukizuna hurrengo legeek ezartzen dute: Basa fauna eta haren habitata babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeak eta Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak.

Aipatu legeek ez dute espresuki ezartzen Ingurumen Departamentuak adjudikazioa hartu duten elkarten kontuak fiskalizatu eta kontrolatu behar dituenik. Kontu horiek begiratzea aukerakotzat jotzen du.

Arrantza barrutien kudeaketa kontratatuzko erabiltzen diren legeak eta baldintza pleguek erakusten dutenez, kudeaketa hori arrantza txartelek ekarritako diru sarrerekin finantziatuko da, hau da, adjudikazio hartzaileak bere gain hartzen ditu finantzaketaren arriskuak. Beraz, Ingurumen

Departamentuak ez du inongo diru kopururik jarri behar arrantza barrutien kudeaketarako.

Ingurumen Departamentuaren kontrola, horiek horrela, zerbitzuaren prestazioaren eta arauetan ezarritako baldintzaren gainekoa da.

Arrazoi horiek direla medio, eta ez denez atzeman espekulaziorik edo irabazirik (martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 87.3 artikulua), ez da beharrezkotzat jo legeak kasu horietarako aurreikusten duen kontratu-haustea.

Ez da beharrezkotzat jo nominak aurkeztu beharra, edo kontratatutako zaintza-kontratua, begi bistakoa baita horiek badirela.

Arrantza barrutiaren kudeaketak egiten dituenak ez dute zertan bankuko kontuetatik pasatu, eta horiek erakutsita ez da frogatzen kudeaketaren egokitasuna.

Aipatu den guztiagatik, galderan aipatzen diren gastuen egiaztagiriak ez dira departamentuan, eta, bestalde, horiek ez dute zerikusirik departamentuak egin beharreko kontrolarekin, jardueraren kontrolarekin alegia.

Zaintze eta sustapen operazioak kontzeptu juridiko zehazgabeak dira. Arrain baliabide guztiak osoki nola kudeatu diren zehatz aztertuta soilik esan daiteke hori arrain baliabideen mesederako den –hori da elkarteari emaniko ardura– ala ez. Adibide gisa, arrantza barrutietan zaindariak daude. Horiek hor egoteak, besterik gabe, ez ditu hobetuko arrain baliabideak, eta ez du sustatuzko arrantza, baina bai, ordea, aprobetxamendua arauen arabera izatea, errespetatzen ez dituenari isunak jarritz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko abenduaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 13ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Errala eta Artanga okupatu zituzten pertsonen espresuki ukatu zitzaizkien ondasun horiek okupatzea, eta atzera egin dezaten eskatu zaie. Jokabide hori interes publikoaren aurkakoa da, titulurik izan gabe beraien mesedetan soilik okupatzen baitituzte ondasun batzuk, eta legezko jabearen borondatearen aurka erabiltzen –Nafarroako Foru Komunitatea da jabea–. Horrela, zenbait legedi urratzen dute; izan ere, ondareari eraso egiten diote, lurraldearen antolamenduari, ingurumen araei, laneko segurtasun eta higienearen arloko araei... bai eta ekonomiari kalte egiten ere, zeren eta okupazioa gertatu artean alderdi hartan arazorik gabe zegoen betizuen ustiaketari kalte egin baitio

Ondare-ondasunei dagokienez, Nafarroako Gobernuak aurreikusitako duen bakarra da Nafarroa-

ko Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legeak ezartzen dizkion beharrak betetzea, hots, ondare hori erabili, aldeztu eta zaintzea.

Terrenoak eta ondasun higiezinak Foru Komunitateko Inbentario Orokorrean sartzeko, Nafarroako Gobernuaren aldeko jabetza titulua da beharrezkoa, eta lehen aipatutako Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean daude araututa ondasun horien erabilera eta xedea.

Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion Artangako ondasunen usufruktua laga zezala, baina eskaera hori ezetsi egin zuen; espedientea amaitu zuen ebazpen administratiboan agertzen dira –eranskin gisa doa– Nafarroako Gobernuak eskaera ezesteko kontuan izan zituen arrazoiak.

Galderan aipatzen den gaiari dagokionez, Parlamentuak Nafarroako Gobernuari emaniko agindua Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legeak jasotzen du; horrela, legeak agintzen duena da ondare hori osatzen duten ondasun eta eskubideak aldeztzea, eta debekatu egiten du horiei dagokienez amore ematea, ñabardura batzuk gorabehera. Lege horrek, orobat, ondasunak zer kasutan besterendu edo laga daitezkeen ezartzen du, eta ez dirudi horrelako kasutzat har daitekeenik galdera-egilearen iradokizuna.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 3an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatutako agiria foru parlamentariaren eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoa ezarri eta haren jarraipena egiteko faseak betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 1997-2000 urteetarako Plan Gerontologikoa ezarri eta haren jarraipena egiteko faseak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 2ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Plan Gerontologikoa "Ezarri eta haren jarraipena egiteko faseak" betetzeari buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluekin bat, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1.- "Komunitatean integratzea" atalean 1.13 jarduketa neurria planteatzen zen, garraio publikoan erabiltzen diren ibilgailuen egokitzapena sustatzeko, helburua, betiere, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen ibilgailuak errazago erabiltzea zen. Horietako zein neurri garatu ditu? Izan al dute lege-garapenik neurri horiek?

Garraio publikoko ibilgailuak egokitzeko, hurrengo diru kopuruak eman dira:

1997. urtean	11.710.824
1998. urtean	12.488.205
1999. urtean	21.133.071
2000. urtean (urrira bitartean betetakoa)	2.394.351

Aurten bertan, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua Nafarroako taxi guztiak egokitzeaz arduratuko da toki entitateen laguntzarekin; izan ere, Ministerioak hamazazpi milioi pezetaz finantziazten bazuen ere programa hori, ez du jada bere gain hartzen.

2.- "Etxebizitzan jarraitzea" ataleko 2.1.2. jarduketa neurriarekin, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak errenta baxuak dituzten pertsonen ematen dizkien diru laguntzak gehituko dira, etxebizitzak eta egoi-

tzen elementu komunak eraberritzeko. Gehitu al dira laguntza horiek? Zer neurritan eta noiz arautu da igoera hori?

Normalean, 65 urte baino gehiago izan eta familiako diru sarrera ponderatua lanbidearteko gutxieneko soldataren halako 2,5 baino gutxiagokoa dutenei (ia gehienak) ematen zitzaizkien dirulaguntza; hain zuzen ere, etxebizitzak eta egoitzen elementu komunak eraberritzeko aurrekontuaren % 30.

Ekainaren 15eko 190/1998 Foru Dekretuak ehuneko hori 40raino handitu zuen. Handitze bera izan zuen, aipatu foru dekretuaren bidez, elementu komunetan –atari eta igogailuetan– arkitektura-trabak kentzeko laguntza; horiek, neurri handi batean, 65 urte baino gehiago dituztenentzat dira mesedegarri. Urriaren 30eko 350/2000 Foru Dekretuan ezarri zen arkitektura-trabak kentzeko dirulaguntza ehuneko % 45koa izanen zela.

3.- "Etxebizitzan jarraitzea" ataleko 2.1.8. neurriak ezartzen du bereziki baloratuko direla adinari eta etxebizitza arazoei lotutako beharrak dituzten kasuak. Halaber ezartzen du egoera horiek kontuan hartuko direla Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak alokairuetarako ematen dituen diru laguntzen graduazioa egiteko. Bete al da helburu hori? Egin al dira beharrezko lege arloko erreformak? Noiz?

Araubide berezikoak diren babes ofizialeko etxebizitzak errentan dituztenek jasotzen dituzten dirulaguntzak graduatzeko, familiaren diru sarre-
rak ponderatu egiten dira; horrela, zenbat eta kide gehiago familiak, orduan eta laguntza handiagoa jasoko du. Beraz, familiako kideren batek 65 urte baino gehiago baditu, familiak kide bat gehiago du. Horretarako, ez da orain arteko araurik aldatu behar izan, orain arteko eustea nahikoa izan da.

4.- "Etxebizitzan jarraitzea" ataleko 2.2.1. neurrian baieztatzen da gizarte zerbitzuei buruzko foru legedi berrian jasoko dela etxean gizarte laguntza jasotzeko eskubidea. Laguntza hori ez da doakoa, baizik eta tarifen sistema bati lotua dago, baremo baten arabera. Egin al dira lege arloko erregulazio horiek helburu hori erdiestearren? Ez bada hala izan, zer arrazoi izan dira 1997-1998 urtetik –aurreikusitako zenetik– gai horren inguruko legerik ez emateko?

Etxeko laguntza, argi eta garbi, gizarte zerbitzuen arloko oinarrizko osasun laguntzak duen oinarrizko programa bat da; udalek aurrera eramaten dutena oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez.

Orain egiten ari da gizarte zerbitzuetako oinarrizko laguntza berrantolatzeke plana; beraz, oinarrizko osasun laguntzako programei eragiten dien Plan Gerontologikoko neurriak eten egin dira ikusi arte zer garapen izaten duten prestatzen ari den plan horretan.

Hala ere, zirriborroan –eztabaida fasean dago– jasotzen da laguntza nor jaso dezakeen, zenbatekoa izanen den, laguntza motak eta laguntzaren arautzea eta prezioa. Horri dagokionez, ezartzen da prezioa izanen dela laguntza jasotzen duen personaren eta bizikidetasun-unitatearen dirusarreraren arabera. Halaber, esaten da tarifa sistema, bai eta laguntzak lortzeko arauak ere, berdinak izanen direla Nafarroa osoan, eta behar den arauetan ezarriko direla.

5.- “Etxebizitzan jarraitzea” ataleko 2.2.19. neurria Telelaguntza Foru Komunitate osora zabaltzeaz mintzo da, % 3ari laguntza eman ahal izateraino. Halaber, laguntza euskaraz ematea bermatuko da eremu euskaldunetan. Lortu al da neurri hori? Zer egin da hori hala izateko?

Plan Gerontologikoak proposatutako erabiltzaile kopurua (2.700) gainditu egin da, eta, egun, Foru Komunitate osoko eskaerei erantzuten zaie. Gaur egun, 3.300 lagunek baino gehiagok jasotzen dute laguntza, eta terminalak 3.150 baino gehiago dira. Laguntza, euskaraz, zerbitzua jarri zen lehenbiziko egunetik ematen ari da.

6.- “Etxebizitzan jarraitzea” ataleko 2.3.6. neurrian aipamena egiten da aparatu ortoprotesikoak mailegatzeko sistema bat ezartzeari eta bestelako laguntza teknikoei buruz, zeinek bermatu beharko baitute oinarrizko osasun laguntzako eta gizarte zerbitzuetako zentroek babesa emandako eskakizunei erantzun azkarra ematea, Gizarte eta Osasun Eremuetan kokaturiko gordailuak direla medio. Bete al da neurri hori? zer eragin izan du sistema horrek Foru Komunitatearena den diruan?

Laguntza soziosanitarioari buruzko Planak, Gobernuak 2000ko ekainaren 27an eman zion hasierako onespina (Parlamentuak ez du onetsi oraindik), aurreikusten du koordinatutako mailegatzeko sistema hori, zeina oinarrizko gizarte zerbitzuek eta osasun etxeek koordinatuko duten. Hori abian jartzeko baldintza bakarra ez da planaren onespina, baizik eta, baita ere, gutxi barru eginen den oinarrizko laguntzaren berrantolatzea.

7.- “Etxebizitzan jarraitzea” ataleko 2.3.8. neurrian laguntza-sorta bat ezarri da ezgaitasunak dauzkan pertsona zahar bat zaintzeaz arduratzen diren familiartekoei ordain ekonomiko bat emateko, horren beharra daukatenean. Horren arauketa izaera orokorrik ez baizik eta apartekoa izanen lukeen foru araudi baten bidez eginen litzateke. Kasu hori arautua al dago foru araudian? Zein eragin ekonomiko izan du neurri horrek Nafarroako Ogasunean?

Egun, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua amaitzen ari da etxeko laguntzari eskaintzen zaizkion baliabideen multzoaren azterketa sakona. Nahi dena da etxeko laguntzarako gaur egun eskaintzen diren diru laguntzak aldatu eta horiek “Familia eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzak familientzat” programa bihurtu, bestekoz behar duten adindunei laguntza eman eta horiek zaharetxeetan sar ditzaten ekiditeko.

8.- “Etxebizitzan jarraitzea” ataleko 2.3.9. neurrian esaten da ezgaitasun larria duen adin nagusiko kide bat daukaten familientzat onura fiskalak ezarri behar direla. Onura horiek gauzatu ahalko dira zerga-oinarriaren murriztapenetan edo familiaren kide hori zaintzeko egin beharreko gastuekoren baten ondoriozko kenkarietan. Sartu al dira Nafarroako araudi fiskalean onura horiek? Zer ondorio izan du horrek Nafarroako Ogasunean?

Abenduaren 30eko 22/1997 Foru Legearen bidez, beste letra bat gehitu zitzaion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 74.1 artikuluari. Letra horren bidez 75.000 pezetako kenkaria ezarri zen hirurogeita bost urte edo gehiagoko ahaide bakoitzeko, baldin eta pertsona lagundutzat jota badago eta aipatu subjektu pasiboarekin bizi bada. Kenkari horrek 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina izan zuen eragina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeak indarrrik gabe utzi zuen 6/1992 Foru Legea 1999ko urtarrilaren 1etik aitzina. Zerga berria ezartzen duen lege horrek eutsi egin dio kenkari horri 62. artikuluan.

Lege aldaketa horren eraginari eta kostuari dagokionez, ukitutako familia eta neurrien kostuari erreparatuta, datu aipagarriak hauek dira:

– Kenkaria aplikatu zaien pertsona-kopurua:

1998. urtea 156

1999. urtea 268

– Kenkariaren zenbatekoa, gutztira:

1998. urtea 10.549.610 pezeta

1999. urtea 21.491.648 pezeta

Aipatu beharra dago ezen Nafarroako Ogasunarentzat benetako kostua, beharbada, kenkariaren zenbateko oso gisa eman diren kopuruak baino txikiagoa izan dela; hori bi arrazoiengatik da horrela:

- Adminstrazioak autolikidazioak begiratu eta horren ondorioz egiten diren zuzenketengatik.
- Subjektu pasiboak, batzuetan, tributu kuota nahikoa ez izateagatik, ez duelako osorik aprobeztatzen kenkari osoa.

9.- "Etxebizitzan jarraitzea" ataleko 2.3.14. neurriak gaixo psikogeriatrikoei laguntzeko plan bat egitea du hizpide. Plan hori egin al da jadanik? zer nolako harrera eta garapena izan ditu?

Horrelako neurriek, bai eta Osasun nahiz Gizarte Ongizate Departamentuek zerikusia duten beste neurri batzuk ere, beharrezkoa dute bi departamentu horien arteko jardun koordinatua. Horretarako, Gobernuak 2000ko ekainaren 27an hartutako erabaki baten bidez, Laguntza soziosanitarioari buruzko Planari hasierako onespina eman zion; plan hori Parlamentuak noiz onetsiko dago.

Abian jarrita dagoena da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Osasunbideak Ahizpa Ospitalariekin sinatuta duten ituna. Kongregazio horrek, besteak beste, Iruñeko Aita Menni eguneko zentroa kudeatzen du; hori, seguruenik, aipatutako bi departamentuen parte hartzea izanen duen zentro soziosanitario bihurtuko da.

10.- Planeko 4. idatz-zatiko "Norberaren etxebizitzaren ordezkotzat" delako atalean, 4.1.1. neurriak esaten du foru dekretu bidez arautuko dela pertsona zaharrak familietan hartzea, eta halakotzat joko dela halako egoera non familia, bikote edo bakarrik bizi diren pertsonak beren etxean zaintzen dituzten gehienez hiru pertsona zahar, horiekin ahaidetasun-loturarik izan gabe. Araudi hori egin al dago? Ezezkoan, zein da Plana ez betetzeko arrazoia?

Hori arautzeko aurreikusita dagoena da maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua aldatzea; dekretu horren bidez dago garatuta gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenak arautzen dituen azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea.

Aipatu dekretuak zentruak eta zerbitzuak arautzen ditu, eta, orobat, nahitaezko baimena lortzeko izan behar dituzten baldintza minimoak kalitatearen aldetik, hala gauza nola giza baliabideei dagokienez. Dekretu honetan aldaketak egiten ari

dira, bertara biltzeko, besteak beste, plan gerontologikoan jasotako baliabide eta oharrak.

11.- "Norberaren etxebizitzaren ordezkotzat" delako atalean, 4.2.36. neurriak aurreikusten du II. mailako prestakuntza-unitate bat eratzeari, Europako Erkidegoan definitzen denez, etxeko laguntzako eta egoitza laguntzadunetako langileentzat, balio profesionala izanik, eta egoitzetan gaur egun dauden langileak unitate horretarako sarbidea izateko moduak eskainiko dira. Prestakuntza-unitate hori arautu al da? Prestakuntza-unitate horrek eraginik izan al du?

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jakinarazi duenez, azken urteotan komunitatearentzako zerbitzuen arloan prestakuntza programa bat ari da aurrera eramaten; zehazkiago, zaharrak lagundu eta zaintzeko arloan, eta, horretarako, geriatriako laguntzaile eta etxeko laguntzaile izateko ikastaroak ematen ari dira langabezia daudenei nahiz lanean ari direnei. Hori ez bada ere enplegu zerbitzuen eskumen zuzena, neurri hori hartu dute ikusten delako lan merkatuan behar hori badela eta sektore horretan lana izan daitekeela.

2000 urteko prestakuntza jardueren programan, arlo horretan, hurrengo ikastaroak eman dira:

- Langabezia dauden langileentzat, laneratzeko prestakuntza.

29 ikastaro 5.485 ordu 415 ikasle

- Lanean ari direnentzat, etengabeko prestakuntza:

11 ikastaro 470 ordu 134 ikasle

12.- "Pertsona zaharren babes juridikoa" delakoan, 6.1 neurrian, esaten da arau bat eginen dela hirugarren adinekoak babesteko, hain zuzen ere eskubide eta betebeharrak, gizarte-ekintza publikoaren printzipio gidariak, administrazio-ekintzak eta eskuduntzen bereizketa arautuz. 6.1 neurrian jasotako kasuak arautu al dira?

Egokiago iruditu zaigu arau berezirik ez egitea hirugarren adineko arlokoak edo Adindunei buruzko Legearen arlokoak diren alderdi horiek guztiak arautzeko. Aldiz, uste izan dugu, egokiago dela alderdi horiek, orokorrean, egitekoa den Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legean sartzea, legegintza honetarako baitago aurreikusia.

13.- "Pertsona zaharren babes juridikoa" delakoan, 6.5 neurrian, aipamena egiten da pertsona zaharrak familietan hartzeari buruzko arau bat egiteari buruz, zeinean aurreikusiko baitira aplikazioreremua, kontzeptua, prozedura, motak, pertsona hartzaile eta hartuen hautaketa, eskubide eta

betebeharrak eta harreraren jarraipena. Egin al da arau hori, Plan Gerontologikoak xedatzen zuen bezala?

Ez da egin; izan ere, aurrera eramaten ari den Plan Gerontologikoa ebaluatzean ikusi dugu neurri horrek eragin eskasa duela eta oso gutxitan aplikatu daitekeela.

14.- "Pertsona zaharren babes juridikoa" delakoan, 6.6 neurrian, aipatzen da beharrezkoa dela pertsona zaharren ezgaitasun eta tutoretzaren araubidea osatzea; araubide horretan Nafarroako Tutoretza Batzordea eta jarraitu beharreko prozedurak aurreikusiko dira. Araubide hori osatu al da, Planean ezartzen zen bezala?

Ez da Nafarroako Tutoretza Batzorderik arautu ez eratu ere, edota ezgaitutako pertsona zaharrak babesteko beste inongo erakunderik, uste izan

baitugu ez duela lehentasunik Plan Gerontologikoak jasotzen dituen neurrien artean; hala ere, 2001eko helburuen artean sartuko da.

15.- "Pertsona zaharren babes juridikoa" delakoan, 6.7 neurrian, ezartzen da boluntario lanari buruzko arau bat egin behar dela, zeinak boluntarioen eskubide eta betebeharrak, sustapen neurriak eta abar jasoko dituen. Arau hori egina al dago?

1998ko martxoaren 27an, Bolondres lanari buruzko Foru Legea onetsi zen.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 11n

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Iruña-Jaka-Huesca autobieren behin betiko trazadurari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Iruña-Jaka-Huesca autobieren behin betiko trazadurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 18ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Iruña-Jaka-Huesca autobia berriaren proiektuari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Iruña-Jaka-Huesca autobieren behin betiko trazadura zein izanen den erabakitzeaz azterlan ekonomiko eta teknikoak egin ote diren? Nafarroako Gobernuak azterlan horiek baldin baditu, horien kopia bat nahi dugu.

Jaun horrek jakin behar du –izan ere, halaxe adierazi nion 2000ko martxoaren 15ean emanda-

ko erantzunean—Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak –horrek, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren bitartez– Lankidetzako Protokolo bat sinatu zutela 1998ko martxoaren 10ean, "Ebro ibaiaren ibarretik iparralderako korridoreak, N-330 eta N-121 bitartekoak, aldatzeko azterlana" izeneko aurretiatzeko azterlana egiteko.

Protokolo horren ondorioz, 1998ko azaroaren 6an Sustapen Ministerioak aurretiatzeko azterlanerako kontratazioa egin zuen.

Halaber, egin beharreko lanen jarraipena egiteko, protokolo horretan jarraipen batzorde tekniko bat eratu zen, Nafarroako Gobernuaren eta Sustapen Ministerioaren ordezkariak osatua.

Aipaturiko protokoloa garatzeko eta kontratatutako proiektuaren jarraipena egiteko bi aldeak dagoen harremana etengabekoa, erraza, emankorra eta erabateko lankidetzakoa izan da eta da gaur egun ere, eta behar izan diren koordinazio-bilerak ere egin dira. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak guztiz ezagutzen du erredakzio-fasean dagoen azterlan teknikoa, eta, beraz, horren edukiaren berri badauka.

Aipatu beharrekoa da 1998ra arte Nafarroako Gobernuak ez zitzaizela zuzendu Sustapen Ministerioari inolako ekimen formal eta eraginkor zela

medio, nahiz eta urte askoz Nafarroan eskaera sozial eta politiko ugari izan ziren –batzuetan, Parlamentuko ekimenetan gauzatuak—komunikabide hori (“Iruña-Jaka autobia” deiturikoa) bultzatzeko.

Halaber, espediente honen garapenean daukaten garrantzi berezia dela-eta, adierazi behar da erredaktatzen ari den azterlan teknikorako muntadunak diren honako egintza hauek erdietsi direla, Nafarroako Gobernuaren lankidetzari eta iradokizunei esker, hein handi batean:

– Lehenik eta behin, kontraturiko aurretiazko azterlanak informazio-azterlan (aurreproiektu) baten ezaugarriak hartu ditu, Sustapen Ministerio-ko Errepide Zuzendaritza Nagusiaren 2000ko otsailaren 9ko Ebazpen baten ondorioz. Horrela, saihestu egiten da beranduago halako aurreproiektu bat kontratatu behar izatea, eta, beraz, nabarmen laburtzen da obrak kontratatze behar diren eta erregelamendu bidez agintzen diren azterlan teknikoak eta proiektuak egiteko epea.

– Halaber, hasierako laburpen moduko oroitidazkiko dokumentazioak eskainitako datuak ikusirik, Sustapen Ministerio-ko Errepide Zuzendaritza Nagusiak 2000ko irailaren 13ko Ebazpen baten bidez erabaki zuen komunikabide horrek autobia ezaugarriak izan ditzala hasieratik bertatik. Era horretan, errepide horren tamainari buruz izan zitekeen edozein zalantza argitu zuen, eta gai horri buruzko espekulazioak uxatu zituen.

– Azkenik, jaun horri adierazi behar diot ezen gaur egun eskueran dauden azterlan eta dokumentu teknikoek ez dutela autobien behin betiko trazadura zehazteko modurik ematen. Izan ere, behin betiko trazadura hori jadanik eginiko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazioaren jendaurreko informazioko fasearen ondorio izan da, bai eta egiteko dagoen informazio azterlanaren jendaurreko informazioaren ondorio ere.

2.- Izan al du bilerarik Nafarroako Gobernuak udalekin –hala esan zuen– trazadurari buruz duten iritzia ezagutzeko?

Nafarroako Gobernuak, bere asmoei eutsiz, bilerak izanen ditu datozen asteetan, trazadura-ukera bakoitzak gehien ukitzen dituen udalekin.

3.- Bilerarik izan ez badu, noiz dauka autobia horren trazadurak ukitutako udalekin biltzeko asmoa? Trazadura behin erabakita dagoenean akaso?

Aurreko atalean adierazi bezala, informazio-bilera horietarako deia, erabakitakoari jarraituz, egin da jadanik, eta bilerak datozen asteetan eginen dira. Galderaren bigarren zatia dagokionez, ez dut onargarritzat jotzen, eta, beraz, ez du erantzunik merezi.

4.- Noiz abiatuko du Nafarroako Gobernuak trazadurari eginiko alegazioak aurkezteko jendaurreko epea?

Nafarroako Gobernuak, Sustapen Ministerioarekin koordinatuz, eta nork bere eskumenen esparruan jokatzuz, jendaurreko informazioko izapidea beteko du trazadura-ukerak agertzen dituen informazio-azterlanari dagokionez, edozein pertsona edo entitate interesdunek egoki jotzen dituen alegazio formalak aurkeztu ahal izan ditzan.

Jendaurreko informazioko prozesu hori egin ahal izanen da informazio-azterlaneko dokumentazio teknikoa amaitu eta ingurumenaren gaineko eraginaren deklarazioaren lehen fasea ebatzi ondoren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Tafallako hegoaldeko lotunea aldatzeko obrei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tafallako hegoaldeko lotunea aldatzeko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 18ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Tafallako hegoaldeko lotunea aldatzeko obrei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Ohikoa al da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak halako obra bat "sine die" atzeratzea Tafallako hegoaldeko sarbideko ordainlekuak 1997an kendu ziren arren?

Tafallako hegoaldean A-15aren lotune berria eraikitzeari dagokionez, esan behar dizut Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez duela eraikuntza "sine die" atzeratu, baizik eta, aldatzeko proposamena Tafallako Udalaren ekimenez egin denez, eta udal horrek 2000ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran erabaki bat hartu zenez, departamentua zain dago, onetsita dagoen proiektuari jarraituz Tafallako hegoaldean A-15aren lotune berria eraikitzearen aldeko erabakia udalbatza horrek noiz hartuko duen.

Halaber, Tafallako ordainlekuak kentzeari dagokionez, adierazi beharrekoa da horrek ez zuela inolako zerikusirik izan hegoaldeko lotunea aldatzearekin; izan ere, ordainleku horiek kendu ziren Tafallako saihebidetako erabiltzaileei hobekuntza nabari bat ekartzeko: sari ekonomikoa ordaintzeari begira kontzesio-hartzailearekin 1986an hitzarturiko ibilgailu-zenbaketarako sistema kendu egin da.

2.- Departamentuan lehentasuna duten beste obra batzuk egiteko erabiliko dira orain obra horretarako 480 milioiak. Zein dira Departamentuak lehentasunezko zatitza jotzen dituen obra horiek, alegia, Tafallako hegoaldeko lotunearen arazoa konpontzeko zegoen diruarekin egiten direnak?

Baldin eta Tafallako Udalak ez badu A-15eko hegoaldeko lotunea aurreikusi bezala alda dadila onesten, begi-bistakoa da obra horretarako gordeta zegoen kontusaila A-15arekin zerikusia duen eta bere funtzionaltasuna hobetzea ekarriko duen beste ekintza bat egitera bideratu behar dela.

3.- Tafallako Udalak hegoaldeko lotuneari irtenbide bat emateari ezetza eman dionez gero, zein neurri hartuko du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren irudiko, Tafallako Udalaren jarrera ofizial eta behin betikoa, A-15eko hegoaldeko lotunea aldatzeari dagokionez, ez da oraindik itxuratu.

Dena den, departamentu honek Tafallako hiriarren interes orokorretzat oso mesedegarri deritza A-15eko hegoaldeko lotunea aldatzeko aurreikusitako soluzio teknikoari—horren proiektua 2000ko ekainaren 30ean onetsi zen, jendaurrean jarria izan ondoren eta Tafallako Udalak aurkezturiko alegazioan aipaturiko hiru alderdiak onartuak izan ondoren—, horri esker Erriberriko saihebidetako bidegurutzetik aurrera distantzia luzeetako trafiko guztia kendu egiten baita, eta, horrela, bidegurutze horretatik gaur egungo hegoaldeko lotunerainoko errepide-zatia Tafallako bertako trafikoak soilik erabili ahal izateko moduan gelditzen baita. Horrela, nabarmenki hobetuko lirateke errepide-zati horretako trafiko-baldintzak, eta eremu horren industria-garapena erraztuko litzateke.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren aburuz, interes partikularrak ere—horiek baitira, antza, obra hori atzeratzeko xedez Tafallako Udalean gailendu direnak—ez lirateke kaltetuak suertatuko. Aitzitik, ziur aski, trafikoaren antolamendu berria mesedegarri izanen litzateke.

Hala eta guztiz ere, aipatu behar dut ezen, Tafallako Udalak A-15eko hegoaldeko lotunearen onspena "sine die" atzeratuko balu, litekeena dela hegoaldeko lotune horren jatorrian, N-121 errepidearen gainean, aurreikusitako biribilgunea eraikitzeari ekitea Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, errepide-segurtasunari dagozkion arrazoiengatik. Biribilgunea horretan bat egiten lukete Erriberriko iparraldeko irteerak, Erriberriko gaur egungo saihebidetako eta Tafallatik Azkoienarako NA-115 errepideak, eta Erriberriko saihebidetako N-121 zaharrarekin gaur egun dituen bidegurutzeak nahiz errepide horrek Tafa-

lilatik Azkoienera doanarekin duen bidegurutzea kenduko lirateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eza-

rritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Gabarderalgo oinarrizko osasun laguntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak Gabarderalgo oinarrizko osasun laguntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak, zeina osasun arloko eledun baita, galdera egin du, abenduaren 15ean, Gabarderalgo kontsultategi medikoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Zergatik ez da ematen Gabarderalen, astean behin gutxienez ere, oinarrizko osasun laguntza?

Galderak erantzuna dauka jadanik, 2001eko urtarrilaren 10etik aurrera herri horrek osasun kontsultategi bat baitauka.

Gabarderalen kasuan, Udalak eskaera egin zuenean, eremu horretako sendagileak 50 banakako osasun txartel baino gutxiago zeuzkan Gabarderalen.

Kontuan izanik kopuru hori, eta, bestalde, Zangozako osasun-etxerainoko distantzia 4 kilometro-

koa dela, medikua herriraino joatea ez zen egokitzat jo, baina bai erabiltzaileak lekuz aldatu behar izan gabe errezetak lortzeko sistema bat ezartzea eri kronikoentzat.

Puntu horri dagokionez, argitu beharrekoa da alde handia zegoela Gabarderalgo erroldaren eta banakako osasun txartelen kopuruaren artean. Maiz asko, alde hori gertatzen da pertsona batek, herri jakin bateko erroldan egon arren, arrazoi ezberdinengatik beste osasun eskualde oinarrizko batean medikua izatea eskatu ahal izan duelako (sarritan, Iruñean, lan-kontuak direla-eta).

Egoera hori ulerturik, udalak informazio-kanpaina bat egin zuen, Gabarderalgo herritarrek euren banakako osasun txartela osasun etxe horretara alda zezaten.

90 banakako osasun txartel baino gehiago bildu zirenean, orduan bai, eskaerari baiezkotzea erantzuna eman zitzaion, eta horretarako bitartekoak jartzeko urratsak eman dira orduz geroztik.

Udalak kontsultategia zaharberitu du, eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zuzendariordetzak jadanik eskatu du osasun-materiala. Jarduerak 2001eko urtarrilaren lehen hamabostaldian hasiko dela aurreikusten da, eta osasun-etxeak bere ordutegia berrantolatu behar du.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 12an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Tuterako Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak haragi-irinak biltegitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak Tuterako Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak haragi-irinak biltegitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak galdera egin du Tuterako Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak haragi-irinak biltegitzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Haragi-irinei tratamendu egokia emateko behar diren gomendioak eman dizkio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Tuterako Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateari.

2.- Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak sinaturiko akordiorik ez dago.

3.- Europako Batasuneko legediak baimenduriko beste metodoa errausketa da, baina metodo hori ez du baimentzen irailaren 20ko 13/1994 Foru Legeak, zeina martxoaren 2ko 1/1999 Foru Legeak aldatu baitzuen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 18an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 18ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako 1998-2005 Planari buruz. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184 eta hurrengo artikuluekin bat, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

1)- 1999. urterako gizarte bazterkeriaren aurkako Planaren aurrekontua 1.950.745 milioi pezetakoa zen, neurri guztien kosturako; 2000. urterako, berriz, aurrekontua 2.311.032 pezetakoa zen. 1999. urtean eta 2000. urteko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu errearen berri jakin nahi dugu.

1999 urtea

Kontusailak	Aurrekontuko kopurua	Betetako kopurua
"Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak"	1.000.000.000	05.916.193
Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu eta neurriak	600.000.000	536.376.003
Bazterkeriaren aurkako plana	260.000.000	17.794.907
	1.860.000.000	1.360.087.103

2000. urtea (2000-08-31n)

Kontusailak	Aurrekontuko kopurua	Betetako kopurua
Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak	845.800.000	716.060.087
Gizarteratzeko eta laneratzeko proiektu eta neurriak	600.000.000	584.057.366
Bazterkeriaren aurkako plana	337.000.000	90.257.913
	1.782.000.000	1.390.376.086

2)- Gutxieneko dirusarrerak bermatzeko neurrietarako aurrekontua 434 milioi pezetakoa zen 1999rako eta 609.720 milioi pezetakoa 2000rako. 1999. urtean eta 2000. urteko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu errearen berri jakin nahi dugu. Zenbat pertsonak jaso du neurri horien onura?

Gutxieneko dirusarrerak bermatzeko neurriek (oinarrizko errenta) hurrengo datuak eman dituzte:

1999. urtea:

Betetako aurrekontua: 580.545.093 pezeta.

Neurri horien onura jaso duten pertsonak: 1.624 oinarrizko errenta x 2,48 pertsona unitate bakoitzeko = 4.027 pertsona (2.088 espediente, 1999-12-31n).

2000 urtea:

Betetako aurrekontua, 2000-08-31n: 620.294.910 pezeta.

Neurri horien onura jaso duten pertsonak: 1.630 oinarrizko errenta x 2,48 pertsona unitate bakoitzeko = 4.042 pertsona (2.257 espediente, 2000-08-31n).

3)- Laneratzeko aurrekontua 9.395 milioi pezetakoa zen 1999an eta 37.500 milioikoa 2000. urtean. Zenbat pertsonak jaso du Nafarroako enpresa normalizatu publiko eta pribatuetan laneratzeko neurrien onura 1999ko ekitaldian eta 2000ko uztailaren 30a arte? Hauxe ere jakin nahi dugu: laneratu den pertsona bakoitzeko enpresek jasotzen dituzten dirulaguntzak, lana sustatzeko hartutako neurri administratiboak eta 1999an eta 2000ko uztailaren 30a arte betetako aurrekontu erreala.

Enpresetako laneratzeari eta 130/1999 Foru Dekretuak jasotako gainerako neurriak:

- Neurri horien onura jaso duten pertsonak:

1999: 196 parte hartzaile.
Kolaboratu duten enpresa publikoak, 20.
Kolaboratu duten enpresa pribatuak, 53.
2000 (08-31): 156 parte hartzaile.
Kolaboratu duten enpresa publikoak, 18.
Kolaboratu duten enpresa pribatuak, 45.

- Dirulaguntza, langileko:

1999: 3.381 pezeta, eguneko = 101.430 pezeta, hilabeteko.

2000: 32.984 pezeta, hilabeteko.

- Enplegua sustatzeko hartutako neurri administratiboak:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuari dagokio. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak, 130/1999 Foru Dekretuaren bidez hurrengoak arautu ditu: gizarte-enplegu babestua, enpresetan laneratzeko laguntzak, bakarkako lan proiektuetarako laguntzak eta gizarteratze-lanera-tze zentroentzako laguntzak.

137/1999 Foru Dekretuak gizartetik bazterturik dauden pertsonentzako lan prestakuntzako zen-troak araupetu zituen.

- Enplegua sustatzeko arloan benetan beteta-ko aurrekontua (Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak).

1999 urtea

enpresetan laneratzeko laguntzak	115.451.175
gizarte-enplegu babestua	418.764.828
bakarkako lan proiektuetarako laguntzak	2.160.000
Guztira	536.376.003

2000. urtea (00-08-31n)

enpresetan laneratzeko laguntzak	76.743.542
gizarte-enplegu babestua	506.464.824
bakarkako lan proiektuetarako laguntzak	849.000
Guztira	584.057.366

- Gizarte-enplegu babestua

1999. urtea

Proiektuak	28 (12, udalek; 16, mankomunitateek)
Parte hartzaileak	323
Gastua, guztira	418.764.828 pezeta.

2000. urtea (00-08-31n)

Proiektuak	33
Parte hartzaileak	406
Gastua, guztira	506.464.824 pezeta.

- Enpresetan laneratzeko laguntzak

	1999. urtea	2000. urtea (00.8.31n)
Enpresa publikoak	20	18
Enpresa pribatuak	53	45
Parte hartzaileak	196	156
Gastua	115.451.175.-	76.743.542.-

- Bakarkako lan proiektuetarako laguntzak

	Kopurua	Gastua
1999 urtea	4	2.160.000.-
2000 urtea (00-08-31n)	5	849.000

	1999. urtea	2000. urtea (00-08-31n)
--	-------------	----------------------------

Hiru programetako parte hartzaile kopurua, guztira	523	567
Benetan betetako aurrekontua	536.376.003.-	584.057.366.-

4)- Gizarteratu eta laneratzeko taldeei dago-kienez, Planaren aurrekontua 27.889 milioi peze-takoa zen 1999. urterako eta 44814 pezetakoa 2000. urterako. Abian jarritako taldeen kopurua, 1999. urtean eta 2000ko uztailearen 30a arte bete-tako aurrekontu erreala.

Gizarteratu eta laneratzeko taldeei dagokie-nez, Nafarroako bi eskualdetarako plan esperi-mental baten esperoan daude; bi eskualdeak hauek dira: Lizarra eta Villatuerta, eta Iruña (San-duzelai, Arrotxapea eta Txantrea). Bi saio pilotu horiek (2000ko 4. hiruilekoan ezarriko dira) era-kutsiko dute zer ratio behar diren, zer lanbide-pro-fil, koordinazio sistema, etab.; horrek guztiak balioko du plana pixkanaka beste eskualdeetara zabaltzeko.

5)- Etxebizitza arloan aurrekontua 921.118 milioiokoa zen 1999. urterako eta 965.278 milioio-koa 2000. urterako. 1999an eta 2000ko uztailearen 30a arte betetako aurrekontu erreala. Saltzeko eta alo-kairuan emateko etxebizitzaren kopurua, guztira, Nafarroan, Iruñean eta Iruñerrian.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departa-mentuak "Integratioko etxebizitzari" buruzko datuak besterik ezin ditzake eman.

	1999. urtea	2000. urtea (00-08-31n)
Beteakoa	57.462.723 (*)	9.370.350
Hitzartutakoa	110.598.745	149.909.030

	Saltzeko		Errentan emateko
	1999 (*)	2000	
Nafarroa, gaine-rako eskualdeak	25	14	0
Iruña	10	3	0
Iruñerria	10	1	0

(*) Entitate kolaboratzaileek ez dituzte oraindik erabat justifikatu datu horiek.

Bestalde, eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gizarteratzearen Atalak kudeatzen dituen ohiz kanpoko laguntzen barranean, etxebizitzekin zerikusia duten prestazioak hurrengo hauek izan dira:

	1999. urtea	2000. urtea (00-08-31n)
Eskatera kopurua	164	125
Emaniko diru kopurua	28.103.687	23.858.725

6)- Hezkuntza arloan Planaren aurrekontua eskasa zen erabat: 48.327 milioi 1999rako eta berdin 2000rako, horietatik milioi 1 haurrak haurtzaindegira eramateko laguntzetarako eta 2 milioi eskolako materiala erosteko laguntzetarako. 1999an eta 2000ko uztailaren 30a arte neurri horietan betetako aurrekontu erreala eta epe horretan berean hezkuntza neurriak noraino bete diren orokorrean.

Nafarroako Gizarte bazterkeriaren aurkako Planean aurreikusita egon eta Hezkuntza eta Kultura Departamentua ukitzen duten neurriei dagokionez, hurrengo jakinarazten da. Hasteko, hau argitu behar da: planak ez du islatzen departamentu honek egiten duen guztia sozialki edo kulturalki kaltetutako ikasleei laguntzeko, baizik eta, bakar bakarrik, plana egiterakoan Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuek egiten zituzten jarduketekiko berrikuntzat hartu zitezkeenak. Aurrerago ikus daitekeenez, gure gizarteko kalte-tuenentzako aurrekontua, gure erkidegoan, hezkuntza gastuaren zati garrantzitsu bat da.

Planak hezkuntza arloan aurreikusten dituen neurriak arloka sailka daitezke. Parte handi bat aniztasunaren integrazioarako neurriak dira, zeinak gure araudian baitaude jasoak. Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak egini-ko ikerlan baten arabera ("Aniztasunaren integrazioarako neurrien ebaluazioa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 1998-1999 ikasturtea"), neurri horien urteroko kostua 1.900 milioikoa da gutxi gorabehera.

Nafarroako Gizarte bazterkeriaren aurkako Planean agertzen diren neurri zehatzei dagokionez, hau da plana aplikatzean sortutako curriculum egokituko unitateen kopurua:

	1998-1999	1999-2000	2000-2001
Ikastetxe publikoak	11	12	15
Itunpeko ikastetxeak		2	5
Elkarrekin eskolatzeko ikastetxeak	4	6	7
Guztira	15	20	27

Curriculum egokituko unitate bakoitza 9 milioi pezeta kostatzen zaio gutxi gorabehera administrazioari.

Hala itunpeko ikastetxeentzako nola elkarrekin eskolatzekoentzat onuragarriak izan dira urriaren 17ko 378/2000 Foru Aginduak jasotako dirulaguntzak (134. NAO, azaroaren 6koa): gutxiengo etnikoak eskolaratzeko eta aniztasunari laguntza berezia emateko programak dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeetako ekipamendu eta obra txiki-txikiarako dirulaguntzak. Laguntza horiek, guztira, 20.000.000 pezeta egiten zuten.

Ikastetxe publikoetan orientatzaile kopurua handitzeari dagokionez, hezkuntza orientabidearen arautze berriak 15 orientatzaile gehiago izatea ekarri du. 1998/1999 ikasturtean 92 ziren; 1999/2000 ikasturtean, aldiz, 107.

Bestalde, 1999/2000 ikasturtean zehar, Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuak proposatuta, dezenteko inbertsioa egin zen ikastetxe publikoetako orientabide departamentuek eta hezkuntzarako laguntza unitateek izan zituzten material psikoteknikoa, bibliografikoa eta informatikoa; horren helburua zen hobetzea hezkuntza orientabideak ematen duen zerbitzuaren kalitatea. Bestalde, orientabidearen arloan, zuzkidura eta ekipamendurako gastuak 26.717.578 pezeta egin zuen gora, kontuan izan gabe Eskola Orientazioaren Unitate Teknikoak, usu, funtzionamendu gastuetarako 7.000.000 pezeta izaten dituela gutxi gorabehera.

- 12.887.186 pezeta material psikotekniko eta bibliografikorako (1.190 Ebazpena, 1999ko abenduaren 9koa, Hezkuntza zuzendari nagusiak emana).

- 13.832.392 pezeta, prentsan iragarritako prozedura negoziatu bidez, 67 ordenagailu erosteko, bai eta inprimagailuak eta softwarea ere, oinarriko ikastetxeetarako.

Osabidezko hezkuntzaren arloari dagokionez, zeina sozialki kaltetutako sektorearentzako baita, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 23 irakas-

le ditu berariaz hortara emanak; hurrengo kontu-sailak izan dira arlo horretarako:

	1998/1999	1999/2000
Gutxiengo kulturalak	8.460.900	10.438.200 pezeta
	6.262.800	7.108.200 pezeta
		10.866.600 pezeta
Portugaleko hizkuntza eta kultura	330.000	270.000 pezeta

	220.000	180.000 pezeta
		270.000 pezeta
Sasoikako langileak	620.000	640.000 pezeta
Guztira	15.893.700	29.773.000 pezeta

Gutxiengo etnikoak eskolatzeko laguntzak eman zaizkie itunpeko ikastetxeei; hona kontusailak:

	Langileen ekipamendua	Langileen eta jantokiaren ekipamendua	Gutxiengo etnikoetako gutxienez 8 ikasle dituzten ikastetxeak	Gutxiengo etnikoetako ikasleak gutxienez % 12 diren ikastetxeak	Funtzionamendu gastuetarako diru kopuru osagarria
1999	3.927.000 pezeta	6.630.000 pezeta	3.320.000 pezeta		
2000	5.531.520 pezeta	7.428.416 pezeta	3.639.794 pezeta	2.799.961 pezeta	4.400.000 pezeta

Beraz, laguntza ekonomikoak honakoak dira

Urtea	Diru kopurua
1999	13.897.000 pezeta
2000	23.799.691 pezeta

Diru kopuruez gain, zenbait ikastetxeri irakasleen laguntza ematen zaie:

Urtea	Gutxiengo etnikoetako laguntza emateko orduak
1999	51
2000	62

Helduentzako oinarrizko hezkuntzari dagokionez, 1999/2000 ikasturtean ezarritako egitura berriaren ondorioz, ikastetxe handiagoetara ekarri ziren helduen oinarrizko hezkuntzarako zenbait ikastetxe; horrela, baliabideak opitimizatu egin ziren, taldeak egonkortu egin baitziren. Helduentzako oinarrizko hezkuntzarako eman diren diru kopuruak honakook dira:

1998/1999	1999/2000
3.569.090 pezeta	1.000.000 pezeta
1.250.000 pezeta	3.348.924 pezeta
1.250.000 pezeta	1.000.000 pezeta
5.597.536 pezeta	8.972.950 pezeta
1.000.000 pezeta	220.000 pezeta
1.000.000 pezeta	5.005.474 pezeta
=13.666.626 pezeta	=19.547.348 pezeta

Hurrengo taulan ikus daitezke zenbait ikastaro; hain zuzen ere, bereziki helduen oinarrizko hezkuntzan nahiz gutxiengo etnikoetako laguntzen lan egiten duten irakasleentzako –bi talde horientzat bereziki–, zenbait prestakuntza ikastaro antolatu ziren; honako taulan ikus daitezke:

1998/1999

– Helduen Hezkuntza programari buruzko jardunaldiak.

– Helduen oinarrizko hezkuntzan, hasierako prestakuntza-ikastaroa.

– Ikastaroa: hizkuntza eta literatura ikuspegi komunikatibo batetik.

– Modulua: helduen oinarrizko hezkuntzan, matematika ikasteko prozesuan, buruketan ebazpena.

– Ikastaroa: fisika eta kimikaren arloko lan praktikokoak (helduen oinarrizko hezkuntzako irakasleak).

– Mintegia: helduentzako oinarrizko hezkuntzarako modulu didaktikoak egitea.

– Ikastaroa: prestakuntza prozesua kultur arteko hezkuntzan. Bi ikastaro egin dira: Iruñeko Irakasleentzako Laguntza Zentroa eta Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroa.

1999/2000

– Helduen oinarrizko hezkuntzako curriculum proiektuak

– Internet: hastapen ikastaroa

– Kulturen arteko eskola. 3 eginen dira: Iruñeko Irakasleentzako Laguntza Zentroan, Lizarrakoa eta Tuterakoa.

– Mintegia: espainieran alfabetatzea, atzerriko hizkuntza modura hartuta.

– Ikastaroa: kulturartekotasuna eta etorkinen hezkuntza.

– Ikastaroa: helduak alfabetatzeko beste estrategia batzuk.

Nafarroako Gizarte bazterkeriaren aurkako Planean bekak ere jasotzen dira. 1999/2000 ikasturteari dagozkion datuak ekar ditzakegu hona, plana indarrean baitzegoen:

1. Bekak

• Erdi eta goi mailako ikasketetarako deialdi orokorra:

Irakaskuntza	3.662	567.408.378
Garraioa	1.363	76.305.948
Jantokia	235	11.695.500
Bizitokia	1.949	435.600.050
Aparteko laguntza	109	15.865.100
Guztira emanikoa:		1.106.874.976
Bekadun kopurua:	5.170	

• Testu liburuak erosteko laguntzak

Laguntza kopurua: 6.763

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 101.445.000 PTA.

• Gizarte garantia

Laguntza kopurua: 238

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 11.900.000 PTA.

• Hezkuntza behar bereziak

Laguntza kopurua: 98

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 9.736.000 PTA.

• Haur hezkuntza

Laguntza kopurua: 479

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 18.202.000 PTA.

2. Jantokia

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ematen die ikastetxe publikoei, dirulaguntza jaso dezaketen ikasleek, hau da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak antolatutako garraioa erabili eta eguerdian –dela zailtasun geografikoengatik, dela ikastetxea herritik urrun egoteagatik– garraio-rik ez duten ikasleek duten jantoki-gastua finantziatzeko. Ezaugarri bereziak dituzten ikasleei ere dirulaguntza ematen zaie, baldin eta ikastetxean

jantokirik bada, eskualdeko nahiz arrunta; gehienetan, gutxiengo etnikoetakoak edo baldintza sozioekonomiko kaxkarretakoak izaten dira. Horrelakoetan, zenbait udalek laguntzak ematen dituzte –ehuneko jakin bat– ikasleek kuota horiek ordain ahal izan ditzaten (1999/2000 ikasturtean kuota hori 205 pezeta zen ikasle eta eguneko).

1999/2000 ikasturtea

	Ikastetxe kopurua	Bazkaltiar kopurua	Gastua, pezetatan
Eskualdekoak	40	3.516	175.221.876
Arruntak	34	854	46.113.492
Dirulaguntza jaso dutenak			
Banakako laguntzak 18		150	8.285.520
Guztira	92	4.520	229.620.888

Ikasturte honetan, gutxiengo etniko edo sozialki kaltetutako taldeetako 941 ikasle ari dira dirulaguntzak jasotzen; horrek 49.873.842 pezeta egiten du.

3. Garraioa

3.1 Antolatutako garraioa

• Garraiatutako ikasle kopurua: 8.893

• Ibilbideen batez besteko prezioa (pezetak eguneko): 5.874.594

• Garraio egunak urteko: 176

Guztira: 1.033.928.644 PTA.

3.2 Banakako laguntzak

• Laguntza jasotako ikasle kopurua: 437

Guztira: 29.788.665 PTA.

3.3 Hutsuneak

• Laguntza jasotako ikasle kopurua: 850

1999/2000 ikasturtean, garraioa 10.180 ikasleek –garraioak dituen hiru aldaerak kontuan hartuta– erabili du; kostua, guztira, 1.063.717.309 pezetakoa izan da.

4. Eskola bidaiariak

Sozialki, kulturalki edo ekonomikoki ikaslerik kaltetuenak dituzten ikastetxeei ematen zaie lehentasuna, eta, halaber, landa eremu edo hiri guneetatik urrun daudenei. 1999/2000 ikasturtean, 165 ikasle sartu ziren programa horretan, sare publikoko 11 ikastetxetakoak, zeinak Lehen Hezkuntzako 5. edo/eta 6. maila ikasten ari baitziren.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioarekin batera egiten den programa bat denez, elkarren artean finantziatzen dute. Hezkuntza eta Kultura Ministe-

rioak 4.378.500 pezeta jarri zituen; gainerakoa, 3.124.260 pezeta, Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gizarte bazterkeriaren aurkako Planak, azkenik, lanbide hastapeneko programei buruzko neurri multzo bat jasotzen du. Nafarroan, programa horiek egiten dira erdi mailako eta goi mailako lanbide heziketa ematen duten ikastetxe publiko eta itunpekoetan. Ikastetxe horiek lanerako orientabide departamentu bat izaten dute, eta dituen eginkizunak, bereziki, lanarekin eta gazteen laneratzearekin dute zerikusia. Gainera, eta bereziki Lanbide Hastapeneko ikasleak gogoan hartuta, garrantzi berezia ematen zaizkio hezkuntza orientabideari eta tutoretzari; horrela, departamentu bereziak ezartzen dira, psikopedagogiaren arloko langileekin besteak beste, eta hurrengo alderdi orokorretan aritzen dira:

- Ibilbide akademiko eta profesionalaren garapena.
- Irakaste eta ikaste prozesuak.
- Aniztasunari laguntza.
- Prebentzioa eta giza garapena.

Lanbide hastapeneko programak arautzen dituen dekretuaren arabera (ekainaren 21eko 233/1999 Foru Dekretua), eskolara egokitze arazoak edo/eta gizarte gatazka motaren bat duten ikasleei eskaintzen zaizkien aukerak bi edo hiru ikasturtetakoak dira. Hauek dira: Lanbide tailerrak, Lanbide Hastapen Egokitua/Oinarrizkoa eta Lanbide Hastapen Berezia. Bestalde, prestakuntza maila honek ederki asko eman dezake bide Lanerako Prestatzeko Lanbide Heziketarako, dela osagarria dela jakintza zabaltzekoa.

Lanbide Hastapeneko programak dira Derrigozko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzen ez dituzten ikasleentzako. Ikasle horiek titulu hori lor dezakete, baliatuz, horretarako, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ezarritako Helduen Hezkuntza programa. Lanbide hastapeneko programan ikasleei aukera horren berri ematen zaie, gogoan pizten zaie, eta, benetan interesa izanda, lortzeko aukera dutenentzako, programa osagarri bat egiten da azterketak gainditzen laguntzeko.

Lanbide Hastapeneko programetan zenbat ikasle behar den talde bakoitzeko araututa dago: lanbide tailerretan, 16-18, irakasten den lanbide profilararen arabera; Lanbide Hastapen Egokitan eta Lanbide Hastapen Berezian, 12 –gizarte bazterkeri egoeran edo horren oso gertukoan dauden gazteentzako dira gehienbat.

2000/2001 ikasturteko matrikulak hurrengo datuak ematen dizkigute:

Matrikulatutako ikasleak	826
Ikasle taldeak	87
Ikasle kopurua taldeko, batez beste	9,49
15 ikasle edo gutxiago duten taldeen ehunekoa	86 %

Lanbide Hastapeneko programetako plazen eskari eta eskaintzari dagokionez, hona hemen ikasturte honetako datuak:

Mota	Eskaintza (1.)	Matrikula (1.)	Okupazioaren %
Lanbide tailerrak	228	154	68
Lanbide Hastapen Egokitua	108	78	72
Lanbide Hastapen Oinarrizkoa	356	274	77
Lanerako prestatzeko tailerrak	32	8	25
Lanbide Hastapen Berezia	Aldez aurretik ezagututako beharren arabera		
Guztira	724	514	71

Lanbide Hastapeneko programa horiek 1999an ekarritako kostuak, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Europako Gizarte Funtzarentzako prestatutako txosten baten arabera, honakook dira:

• Langileak	165.873.931 PTA.
• Funtzionamendua	42.062.219 PTA.
• Bekak edo ikasteko laguntzak	2.567.807 PTA.
• Eskola garraioa	2.000.000 PTA.
• Ekipamenduak	10.546.244 PTA.
• Irakasleen prestakuntza	149.840 PTA.
Guztira	223.170.041 PTA.

7)- Haur eta gazteentzako neurriak abiarazteko esku-hartzeari dagokionez, Haur eta gazteentzako taldeak 2000. urtean jarri ziren abian, 22.407 milioi pezetako aurrekontuarekin. Uztailaren 30 arte betetako aurrekontua eta zenbat talde dauden jakin nahi dugu.

Haur eta gazteei laguntza emateko ekipoak abiarazteari dagokionez, –Oinarrizko laguntza berrantolatzeari buruzko planean dago jasota–, plana amaitzeaz dago gaur egun. Horri dagokionez, amaitzekotan da agiri bat non ezarriko baita ekipo horiek zer nolako funtzionamendua izanen duten egitekoa den Nafarroako adingabekoen planaren barruan.

8)- Osasun arloan, Planaren aurrekontua 137.490 milioi pezetakoa zen 1999rako eta 173.490 milioikoa 2000rako. 1999an eta 2000ko

uztailaren 30 arte betetako aurrekontua eskatzen da.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuan ez da inongo kontusailik Nafarroako gizarte bazterkeriari buruzkorik.

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 15ean.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Plan Gerontologikoaren helburuak betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko azaroaren 6ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Plan Gerontologikoaren gaur egungo garapen-egoerari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluari eta hurrengo jarraituz:

1. I. eremuan, Nafarroako Iparraldean, 1. azpierrezan –Elizondo, Doneztebe eta Lesaka–, aurreikusita zegoen erabilera alternatiboak ezartzea Doneztebeko apartamentu babestuetan, eta ez zen aurreikusten toki berririk sortzerik. Bete al dira alor horretako helburuak? Izan al da aldaketarik eskualde horretan planean ezarritakoarekin alderatuta? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Apartamentu babestuetarako erabilera alternatiboak ezartzeko erabakia bete-betean dagokio kasuan kasuko udalari.

Donezteberen kasuan, hasiera batean bost apartamentu deskalifikatu nahi ziren, eguneko zentro berri bat sortzeko. Dena den, Malerrekako Mankomunitatea, zeina baliabide horren titularrak baita, oraindik ere aztertzen ari da zer egin.

2. I. eremuan, Nafarroako Iparraldean, 2. azpierrezan –Altsasu, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza eta Ultzama–, aurreikusita zegoen 68 toki berri sortzea toki lagunduetan eta gai direnentzako tokietan, eta, gainera, 35 toki baino gehiago dituzten zentroetan dauden tokien % 30, gutxienez, toki lagundu bihurtzea. Bete al dira eremu horretarako ezarri ziren helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Betelun 45 pertsonentzako (horietatik, 20 lagunduak dira, eta gainerako 25ak gai direnentzat dira) egoitza bat eraikitzen ari dira.

Tokien %30 birmoldatu beharko zukeen 35 tokitik gorako zentro bakarra obretan dago gaur egun, birmoldaketa hori posible izan dadin egokitzapenak egiteko.

3. II. eremuan, Nafarroako Auzoak Iparraldean –Auritz, Izaba, Zaraitzu eta Zangoza–, aurreikusita zegoen 30 toki sortzea Irunberrin, gai direnentzakoak diren baina gaur egun lagunduek betetzen dituzten tokiak birkalifikatu eta finkatuta uztea eta Bizikidetzako Unitate Txikiak (B.U.T.) sortzea Zaraitzu, Izaba eta Aurizko gizarte zerbitzuen oinarriko eskualdeetan. Bete al dira eremu horretako helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Irunberrin lagunduentzako 36 toki gehitu dira (6 birmoldaketa eta 30 toki berri).

Eraikuntza-fase aurreratuan dago 40 pertsonentzako (horietatik, 15 lagundu eta 25 gai) egoitza bat Erroibarren.

20 toki sortuko dira Otsagabiko B.U.T. batean.

Halaber, Uskartzen gai direnentzako egoitza baten jardura baimendu da. Egoitza horrek 18 pertsona har ditzake.

4. III. eremuan, Lizarrakoan –Allo, Antzin-Ameskoa, Lizarra, Lodosa, Los Arcos, Gares, San Adrián, Viana eta Villatuerta–, Vianan 18 toki sortzea aurreikusita zegoen, bai eta erabilera alternatiboak ezartzea Garesko apartamentu babestuetan. Bete al dira eremu horretarako ezarri ziren helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Etxabarrin gai diren 18 pertsonarentzako egoitza bat ireki da.

Eulateko egoitzak, zeina eraikuntza-fasean baitago, gai diren 20-25 pertsona hartu ahalko ditu.

Apartamentu babestuetarako baliabide alternatiboak ezartzeko erabakia baliabidearen titular diren udalei dagokie, eta aipaturiko xedea duten proposamenak egin zaizkie horiei.

5. IV. eremuan, Tafallakoan –Artaxoa, Zarrakaztelu, Erriberri, Azkoién eta Tafalla– Barasoainen 5 toki sortzea aurreikusita zegoen, bai eta gai direnentzako 50 toki sortzea ere bizikidetzako bi unitate txikitan –hain zuzen ere Zarrakaztelu eta Caparrosoko oinarritzko eskualdeetan– eta 10 toki sortzea Tafallako apartamentu babestuetan. Bestalde, gaur egun lagunduak direnek beteriko gai direnentzako tokiak birsailkatu eta finkatuta utzi nahi ziren. Bete al dira eremu horretarako ezarri ziren helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Barasoaingo egoitzako 5 tokiak gehitu egin dira.

Halaber, bi B.U.T. baimendu dira: bata Caparrosen, 21 pertsonarentzat, eta bestea Zarrakaztelun, 22 pertsonarentzat.

Faltzesen birsailkapenak egin dira.

Tafallan ez dira aurreikusitako birsailkapenak egin. Dena den, San Manuel y San Severino egoitzan gaur egun egiten ari diren obrei esker, 78 pertsona (26 lagundu eta 52 gai) hartu ahal izatek 94 pertsona hartu ahal izatera pasako da.

Tafallan apartamentu babestuak egiteko asmoa ez da gauzatu, departamentuak onesteko moduko ekimenik ez delako izan.

San Martin Unxeko egoitzan, zeinak gai direnentzako 12 toki baitzeuzkan, 8 toki berri sortu dira.

6. V. eremuan, Tuterakoan –Buñuel, Cintruénigo, Corella, Tuter eta Valtierra–, Buñuelen 8 toki eta Tuteran 5 toki sortzea aurreikusita zegoen. Bestalde, 15 apartamentu babestu sortuko ziren Tuteran, 22 tokitarako, eta erabilera alternatiboak ezarriko ziren Milagroko apartamentu babestuetan. Bete al dira eremu horretarako ezarri ziren helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Buñuelen 8 plaza lagundu eratu dira.

Tuteran, Nuestra Señora de Gracia egoitza, zeinak gai direnentzako 79 toki baitzeuzkan, orain 81 toki izatera pasa da: 40 dira gai direnentzat, eta 41 lagunduentzat.

Fustiñanan 30 pertsona har ditzakeen egoitza berri bat egiten bukatu da.

Milagron, egoitza bat eraikitzea aztergai dute.

Tuteran apartamentu babestuak sortzeari ezin izan zaio bultzadarik eman, ekimenik ezagatik. Milagroko apartamentu babestuetarako erabilera alternatiborik ere ez da ezarri.

7. VI. eremuan, Iruña eta Iruñerrikoan –Barañain, Berriozar, Burlata, Noain, Orkoién, Iruña eta Atarrabia– aurreikusita zegoen 490 toki berri, 75 toki apartamentu babestuetan eta Iruñerrian gai direnentzako tokien gainontzeko beharrei erantzuteko behar ziren bizikidetzako unitate txikiak sortzea. Bestalde, orain arte lagunduek betetako hainbat toki, gai direnentzako zirenak, birsailkatu eta finkatzea nahi zen. Bete al dira eremu horretarako ezarri ziren helburuak? Izan al da aldaketarik plana onetsi zenetik? Aldaketarik izan bada, horien zerrenda nahi dugu.

Iruñean, besteen laguntza behar duten pertsonentzat 1997an 106 toki egotetik 536 toki egotera-ko aldaketa izan da.

Aurki zaintzapeko 32 apartamentu berri funtzionatzen hasiko dira Iruñean (Arrotxapea auzoa).

Hori guztia jakinarazi dizut behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 26an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Ikastetxeetara joaten diren eta laguntza fisioterapeutikoa behar duten ikasleei emandako zerbitzuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak ikastetxeetara joaten diren eta laguntza fisioterapeutikoa behar duten ikasleei emandako zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 12ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin zuen, azaroaren 23an, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetara joaten diren ikasleei fisioterapia-laguntza emateko Hezkuntza eta Osasun Departamentuen artean dagoen koordinazioari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentua zenbait aukera aztertzen ari da Nafarroako ikastetxeetara joaten diren ikasleentzako fisioterapia-laguntzan dauden dis-funtzioak konpondu ahal izateko. Laguntza hori

gaur egun ematen dutenak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko fisioterapeutak dira.

Horrelako beharrizanei erantzuna erabateko egonkortasunez eta denboran zehar jarraitasunez eman ahal izateko behin betiko soluzioak aurkitu bitartean, Osasunbideak hauxe eskaini eta, beraz, bermatzen du: ume horiei eta etorkizunean egon litezkeenei euren patologia aztertuko diela, besteak beste, kasuan kasuko mediku errehabilitatzaileak, eta horrexek ezarri eta ondoren kontrolatuko du Hezkuntzako fisioterapeutek egin beharreko errehabilitazio-tratamendua.

Halaber, ikastetxeetako fisioterapeutak oportuntan daudenean, eskola-ume horiek Osasunbideko fisioterapia-zerbitzuetan segitu ahalko dute euren tratamendua hartzen, betiere medikuaren irizpideei jarraituz. Horretarako, Osasunbidearen beraren azpiegitura eta instalazioak ume horiei ere ireki zaizkie.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 8an.

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

2000 hektarea baino gutxiago dituzten ehiza barrutiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak 2000 hektarea baino gutxiago dituzten ehiza barrutiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 22ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du 2000 hektarea baino gutxiago dituzten ehiza barrutiei buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, 16 ehiza barruti daude, lege horrek indarra hartu eta gero eratu eta 2.000 hektarea baino gehiago dituztenak.

2.000 hektarea baino gutxiagoko barrutiak baimentzeko irizpideetako bat izan da aparteko baimena ematea herri batek behar adina azalera izan ez eta mugakide duen beste barruti batekin elkartzeko, azken horrek bere indarraldia bukatu gabe, mugakidea den barrutiari geratzen zaion

indarraldirako. Egoera horretan, hiru barruti daude gaur egun.

Aparteko egoeratzat jotzen den beste bat 2.000 hektareetara iristen ez diren herriena da, baldin eta ehiztari asko badituzte. Horrek berekin ekartzen du inguruko barrutiek ez onartzea haien sarrera, beren barrutietako ehiztari bakoitzeko azalera nabarmen jaistea suposatuko bailuke horrek. Lau barruti daude egoera horretan.

Azkenik, Nafarroako Ehiza Plan Estrategikoan (1998-2008 aldia), aurreikusita dago 2.000 hektarea baino gutxiagoko barrutiak baimentzea, baldin eta Ehiza Antolatzeko Plan bat egiten bada beste barruti batzuekin batera, gutxienez ere 2.000 hektareetara iritsi arte. 2/1993 Foru Legearen aldaketa eginen delakoan, hain zuzen ere aukera hori jasotzeko, 1999 eta 2000. urteetan 2.000 hektarea baino gutxiagoko bederatzi ehiza barruti baimendu dira, 2000. urterako ehizaldiaren bukaera bitarte. Barruti horiek baimentzeko arazoia izan da inguruko barrutiek batzeko arazoak izatea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 9an.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros.

Komunitatearen Intereseko Lekuak (KIL) direla-eta alegazioak aurkezteko epea luzatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Komunitatearen Intereseko Lekuak (KIL) direla-eta alegazioak aurkezteko epea luzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 22ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres galdera egin du Komunitatearen Intereseko Lekuak direla-eta alegazioak aurkezteko epea luzatzeari buruz. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren ustez –toki entitateek eta gizarte eragileek Natura 2000 sarea zehazten parte hartzeko printzipioaren baitan–, beharrezkoa da epe zabala eskaintzea planteatu daitezkeen gai guztien berri jasotzeko. Lekuak katastroko eskalan definitzea –2000ko bukaeran baizik ez dira eskuragarri egonen–, gizarte eragileek proposamena aztertzeko denbora gehiago eskatzea edo Ingurumen Departamentuaren Zuzendaritza Nagusiak horri buruzko informazio saio batzuk foru lurralde osoan antolatzea bezalako arrazoiak dira aintzat hartu direnak jendaurreko epea luzatzeko; izan ere, gure helburua da denbora falta ez izatea sarea errefusatzeko edo ez ezagutzeko arrazoiak.

Gaur arte, 10 alegazio aurkeztu dira. Alegazio horiek, aurkezten diren gainerakoekin batera, irekitako espedientea bukatu ondoren igorriko dizkizugu, jendaurreko epea 2001eko ekainera arte zabalik baitago.

Nafarroako Gobernuaren ustez, guztiz beharrezkoa da jendaurreko epe hori, arrazoi askorengatik. Hona horietako batzuk:

- Igorritako proposamenean, jabeek eta toki entitateek ezin zituzten ezagutu proposatutako lekuen muga zehatzak, leku horien eskala operatiboko (katastrokoa) definizioa Ingurumen Ministerioari igorritako dokumentazioaren ondoren eduki baitugu.

- Modu eraginkorra da Nafarroan sarearen helburuen eta edukiaren berri emateko.

- Europako Batzordearen 92/43/EEE Zuzentarauaren 4. artikuluari jarraituz, estatu kideekin ados jarrita, Komunitatearen Intereseko Lekuen zerrendarako proiektu bat egingen da. Hori dela eta, departamentu honen iritziz, batzordearen zerbitzuek hori teknikoki baimentzen duten esparru orokorraren barruan, aukera bat egon daiteke gai batzuk egungo proposamenaren arabera egokitze eta baita hartara gehitzeko ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 9an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Eguesibarko Udalak Toki Administrazioari buruzko Foru Legea bete ez izanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Eguesibarko Udalak Toki Administrazioari buruzko Foru Legea bete ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 22ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin zion, Eguesibarko Udaleko errealtateari buruz, Toki Administrazioari buruzko kontseilari Rafael Gurra Indurain jaunari. Departamentu horrek Lurraldearen Antolamendua arloan eskumenik ez duenez gero, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak emandako erantzuna transkribatzen da jarraian:

1.- Goian aipatutako 10/1994 Foru Legea hain nabarmen ez betetzeak ekarriko al du Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartzea legea betetzen dela bermatzeko?

Eguesibarren 2001erako udal aurrekontua onesteko unean, une horretara arte populazioa ofizialki zehazten zuen arauak, martxoaren 18ko 480/1999 Errege Dekretuak, Eguesibarko Udalak 1.546 biztanleko populazioa zeukala adierazten zuen.

Beraz, ausart samarra dirudi 10/1994 Foru Legearen ez-betetze nabarmen bat izan dela esateak, NDEren ordezkariak esan duen bezalaxe.

2.- Zer pauso emanen du Nafarroako Gobernuak Eguesibarko Udalaren aurrekontua gai horri buruzko foru arauen arabera izan dadin?

Galdera honek izan du jadanik erantzuna, goian.

3.- Nafarroako Gobernuaren ustez, egokia al da BOEak sustatzeko lur eskasia dagoelako Iruñerriko udal batek ondarea saldu eta salmenta horrek lurzoruko ondare publikoa handitzeko lur gehiago erostea ez ekartzea?

Nafarroako Gobernuaren ustez, lurzoruko ondare publiko guztiak legeak ezarritako helbu-

ruetarako erabiltzea da egokia: lurzoruko-merkatua erregulatzeko, ekimen publikoetako jardueretarako lurzoruko-erreserbak lortzeko eta planeamenduen betetzea errazteko.

Bestalde, lurzoruko ondare publikoak eratzearen gainean Nafarroako Gobernuak duen jarrerari dagokionez, gogorazi beharrekoa da Parlamentu foru lege proiektu bat bidali dela, eta horren bidez lehentasunez erosi eta atzera eskuratu ahal izateko lau eskualde zehazten direla Iruñerrian. Horren xedea da lurzoruko-merkatua erregularizatzeko, ondare publikoa eratu edo handitzea edo dotazio-defizitei aurre egitea.

4.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak 2.000 biztanle baino gehiagoko zenbat udalek eratu duen –Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak xedatutakoari jarraikiz– lurzoruko udal ondarea babes ofizialeko etxebizitzak eraiki ahal izateko, lurren merkatua arautzeko eta lur erreserbak izateko?

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko zerbitzu juridikoek interpretatzen dutenez, ondare horiek eratzeo egintza espresurik ez da behar; izan ere, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Legeak indarra hartu zuten bertan eratu ziren, erroldan 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokienez.

5.- Zer kontrol tresna ezarri du Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko aipatu alderdiak bete daitezen?

Erroldako 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalei lurzoruko ondare publikoa eratu beharra lege ezarri ondoren, eta hura eratzeo inolako egintza espresurik behar ez denez, 2.000 biztanletik gorako udal guztiek –euren eskumenez baliatu eta dauzkaten betebeharrak betetzen dituztenek, betiere– uneoro hartarako egoki diren erabakiak hartzen dituzten presuntzioa darabil Gobernu honek. Udalek hartzen dituzten erabakiei, ordea, Toki Administrazioari buruzko Departamentuak legezkotasun kontrola egiten die.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 18an.

Toki Administrazioari buruzko kontseilariak: Rafael Gurra Indurain

Laguntza soziosanitariorako foru plana igortzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak laguntza soziosanitariorako foru plana igortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2001eko otsailaren 7ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak, zeina osasun-gaietarako eleduna baita, galdera egin zuen, urtarilaren 24an, laguntza soziosanitariorako foru planari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 27an eman zion hasierako onespena laguntza soziosanitariorako foru planari. Plan horri hasierako onspena emateko erabakian testu horretarako ekarpenak eta alegazioak egiteko prozesua ere taxutzen zen, eta horren ondorioz 371 zuzenketa jaso dira, gehitzeko, kentzeko edo ordeztzekoak. Zuzenketa horiek entitate, elkarte eta erakundeek eginak dira.

Une honetan horiei buruzko azterketa tekniko banakatua abian da, eta horren ondoren Plana erredaktatzeko batzordeari dei egingen zaio berriro, Planaren aldaketak erabakitzeko. Prozesu horren ondoren, Planaren fase pilotuari buruzko ebaluazioarekin batera, Gobernuari igorriko litzaioke berriz, berak onetsi eta Parlamentura bidaltzeko.

Planak gaur egun duen testuak ezartzen duenez, Gobernuak Plana behin betikoz onestearen ondorioz, betetze-epeei, baliabideei eta aurreikuspen ekonomikoari dagozkion puntu guztiak erantsiko zaizkio.

Laguntza soziosanitariorako foru planaren koordinatzailea kargutik kentzeari dagokionez, berak halaxe eskatu zuelako izan zen, bat-batean suertatu zitzaizkion arrazoi pertsonal hutsak zirela-eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko otsailaren 6an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen kariaz arauak egokitzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen kariaz arauak egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko abenduaren 7ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen kariaz arauak egokitzeari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondokoei jarraituz emana:

